

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure funtsezko elkarteak hauek izango dira:

ERABIL: Enpresa honek kartoiarekin egiten du lan, beraz material biodegradagarria erabiliko dugu.

Lea-Artibaiko kalitatezko enpresa bat denez, konfiantza ematen digu.

CORREOS: Bezeroak adierazten duen helbidera joateko eta arropak batzeko erabiliko dugu garraio zerbitzu hau. Enpresa hau bat egiten du gure baloreekin, beraien garraioan energia berriztagarriak erabiltzen dituztelako.

Bulegoak herri eta hiri gehienetan daude beraz bai guretzat eta bai gure bezeroentzat onuragarria da. Urte askotan daude merkatuan beraz konfiantzazkoa da, ongi eta azkar egiten dutelako beraien lana.

KUTXABANK: gure kudeaketa finantzarioan lagunduko digun entitatea izango da. Gure proiektuan egunero transferentzi asko egin beharko ditugu, eta beraiekin etengabeko harremanetan egon beharko gara ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko gure bezeroei.

XURI: Gure proiektuan espazio handi bat beharko dugu gure arropak antolatzeko. Xuri Markinako burdindegi bat da, eta gure biltegiko apalak beraiei erosiko dizkiegu; arropak era egokian antolatzeko gure lantokian. Markinako enpresa honek gertutasuna eta konfiantza handia ematen digu.

LANTEGI BATUAK: Plazakolan kokatuta dagoen enpresa honi kartoizko pertxak egitea proposatuko diegu. Pertxa jasagarriak izango dira % 100ean. Pertsona ez gaituei lana ematea oso garrantzitsua iruditzen zaigu.

-INSTAGRAM, FACEBOOK ETA TWITER: Sare sozialen bitartez gure enpresaren marketinga egingo dugu. Moda munduarekin harremana duten Euskal Herriko pertsonai ospetsuekin harremanetan jarriko gara (telebistako aurkezleak, aktoreak, deportistak...eta abar) gure web gunearen berri emateko.

EUSKADI GAZTEA ETA ETB: hasieran kanal hauek ere erabiltzea pentsatzen dugu gure proiektuak indarra hartzeko. Euskadi gaztea irratia gazte askok entzuten dute eta bezero potentzial asko hartu ditzakegula pentsatzen dugu. ETBn ere iragarkiak ipintzea pentsatu dugu, gure esparrua hasiera baten Euskal Herria izango delako.

